

2025eko bigarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 1,6 egin zuten behera aurreko hiruhilekoaren aldean Euskal AEn

Inportazioen prezioak % 5,6 jaitsi ziren

2025eko bigarren hiruhilekoan, **esportazioen** prezioek % 1,6 egin dute behera, aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustaten datuen arabera. Alderatzea 2024ko hiruhileko berarekin egiten badugu, prezioak % 0,4 jaitsi dira.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute; izan ere, prezio horiek % 5,6 egin dute behera urte artean zein 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean.

Esportazio “energetikoen” prezioek % 3,0 egin dute behera, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta “ez-energetikoenek” % 1,7. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun “energetikoen” prezioak % 6,6 jaitsi dira, eta “ez-energetikoenak” % 0,4.

Inportazioen kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak atzera egin du bai aurreko hiruhilekoaren aldean (% 13,0) bai urte arteko tasan (% 19,3). Ondasun “ez-energetikoak” ere jaitsi egin dira bi kasuetan: % 3,8 hiruhileko artean eta % 0,6 urte artean.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2025/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-1,6	-0,4	-5,6	-5,6
Energiazko gaiak	-3,0	-6,6	-13,0	-19,3
Energiazkoak ez diren gaiak	-1,7	-0,4	-3,8	-0,6
Kontsumo-ondasunak	-1,2	4,9	-0,9	0,6
Kapital-ondasunak	-0,4	-0,1	-3,4	-3,7
Bitarteko ondasunak	-2,2	-2,2	-6,4	-6,5

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2025eko Irailaren 26a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenaren arabera, **esportazioen** prezioak, 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, murriztu egin dira ondasun mota guztietan: Kapital-ondasunetan % 0,4, Kontsumo-ondasunetan % 1,2 eta Bitarteko ondasunetan % 2,2. Aurreko urtearen aldean, Kontsumo-ondasunen kasuan soilik izan da goranzko joera, % 4,9 hazi baitira.

Analisiaren arreta **inportazioetan** jarritz, aurreko hiruhilekoaren aldean murrizketa orokorra izan dela ikusten da: % 0,9 Kontsumo-ondasunetan, % 3,4 Kapital-ondasunetan eta % 6,4 Bitarteko ondasunetan. Urte arteko alderaketa eginez gero, Kontsumo-ondasunen prezioak bakarrik igo dira (% 0,6).

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioek behera egin dute, 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, arlo guztietan, eta horien artean ELGA nabarmendu behar da (–% 1,7); eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, ELGAk ere behera egin du (oraingoan % 0,1), munduko gainerako herrialdeek bezala (–% 1,6). Hala ere, Euroguneak eta EBk % 0,9ko hazkundera izan dute prezioetan.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2025/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-1,6	-0,4	-5,6	-5,6
Euro eremua	-0,8	0,9	-1,4	-1,2
EB-28	-1,2	0,9	-1,7	0,0
ELGE	-1,7	-0,1	-3,5	-3,1
Munduko besteak	-0,7	-1,6	-10,2	-11,3

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hiri beraren aldean

Data 2025eko Irailaren 26a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, eremu ekonomiko guztietan eta denborazko konparazio guztietan prezioak jaitsi egin dira, EBn izan ezik, bertan % 0,0ko tasa laua mantendu baita aurreko urtearekin alderatuta.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arte-ko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62